

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2301

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 8koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez esleitzen baitira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko azaroaren 13ko Aginduaren bidez araututako laguntzak. Agindu horren bidez, ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko proiektuak garatzeko diru-laguntzetarako deia egiten zaie Lanbide Heziketako heziketa-zikloak 2014-2015 ikasturtean ematen dituzten itunpeko ikastetxeei eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoei.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko azaroaren 13ko Aginduaren 10. artikulua dioenez (agindu horren bidez, deialdia egin da, 2014-2015 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuetan eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko proiektuak garatzeko laguntzetarako), Lanbide Heziketako sailburuordeak, Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzaren proposamenez, ebazpena emateko eskumena du, agindu horren babesean aurkeztutako eskariei buruz. Horretarako, sei hilabeteko epea izango da, aipatutako agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko zaie interesdunei ebazpenaren berri, erakunde onuradunak eta onartutako zenbatekoak adierazita.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordeak proposatuta, diru-laguntzak ematea eranskinean zerrendatzen diren ikastetxe onuradunei, ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko proiektuak egin ditzaten, betiere aginduaren 3. eta 9. artikuluetan ezarritako irizpideei jarraikiz.

Bigarrena.– Gainerako betekizunei dagokienez, aintzat hartuko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko azaroaren 13ko Aginduan ezarritakoa (azaroaren 26ko EHAA). Agindu horren bidez, deialdia egin da, 2014-2015 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuetan eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko proiektuak garatzeko laguntzetarako.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa ezar dakioko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ikastetxeei ebazpen hau jakinarazten zaien egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 8a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

2015eko maiatzaren 26a, asteartea

ERANSKINA

2014KO IKAS-EKINEZKO AGINDUAREN GAINEKO EBAZPENA – 2014-11-13KO EHAA

Zk.	Kod.	Udalerria	Ikastetxea	Eskabide kop.	Diru-laguntza
1	010201	Laudio/LLodio	IES Municipal Llodio BHI	1	1.989
2	010248	Vitoria-Gasteiz	CPES Egibide BHIP	17	33.815
3	014664	Bilbao	CPEIPS Salesianos Deusto M. ^a Auxiliadora HLBHIP	9	17.902
4	014634	Bilbao	CPES Esc. de Química y Electrónica BHIP	1	1.989
5	015069	Bilbao	CPES Fundacion Peñascal BHIP	9	17.902
6	014669	Bilbao	CPES Mikeldi BHIP	1	1.989
7	014718	Bilbao	CPES Zabalburu BHIP	3	5.967
8	014837	Derio	CPES Txorierri S. Coop. Ltda. BHIP	3	5.967
9	014728	Durango	CPES San José Maristak BHIP	12	23.870
10	014775	Markina	CPES Lea-Artibai BHIP	13	25.859
11	014779	Muskiz	CPES Somorrostro BHIP	9	17.902
12	014810	Santurtzi	CPEIPS San Jose De Calasanz HLBHIP	4	7.957
13	014824	Sopuerta	CPEPS San Viator LBHIP	9	17.902
14	014723	Zeanuri	CPES Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia BHIP	8	15.913
15	012746	Andoain	CPEIPS La Salle Berrozpe HLBHIP	20	39.783
16	012456	Arrasate/Mondragon	CPES Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, José M. ^a Arizmendiarieta S.C.BHIP	5	9.946
17	012491	Donostia / San Sebastián	CPES C.D.E.A. BHIP	1	1.989
18	012497	Donostia / San Sebastián	CPES Cebanc BHIP	3	5.967
19	012498	Donostia / San Sebastián	CPES Ceinpro BHIP	7	13.924
20	012479	Donostia / San Sebastián	CPES«Centro de Estudios A.E.G» BHIP	5	9.946
21	012490	Donostia / San Sebastián	CPES Nazaret BHIP	13	25.859
22	012742	Irun	CPES Irungo La Salle BHIP	1	1.989
23	012581	Ordizia	CPES Goierri BHIP	11	21.881
24	012566	Tolosa	CPES Tolosako Inmakulada Ikastetxea BHIP	1	1.989
25	012572	Urnieta	CPES Salesianos Urnieta BHIP	5	9.946
26	013380	Zarautz	CPES Oteitza Lizeo Politeknikoa BHIP.	10	19.891
27	012593	Zumarraga	CPES Urola Garaiko Lanbide Eskola BHIP	3	5.967
GUZTIRA				184	366.000